



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996eko irailaren 11a

49 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa (10. or.).
- Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua (14. or.).
- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proiektua (15. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzkoa (18. or.).
- Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua (20. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Kolonbian iragan ekainaren 8an izandako gertakizunei buruzko aldarrikapen politikoa. Bozeramaleen Batzarrak onetsia (21. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau-emaileak:

- 296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena (22. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Ekitaldiak

- 1996ko uztailaren eta abuztuaren eginiko bilerak (24. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1996ko uztailaren eta abuztuaren sartu diren agirien zerrenda (24. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko ekainaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuari bidali dio.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozera-mailen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko ihardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1996ko irailaren 30eko 12etan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena

Administrazio Publikoek garatutako politikaren esparruan, ekonomiaren arloan dauden desoreka sektorialak erregulatu eta beharrian handienak dituzten klase sozialen onurarako errenta birbanatzeko oinarrizko tresnak dira dirulaguntzak.

Laguntza honek izaera juridiko eta ekonomiko hainbat irudi multzo biltzen du, hala nola hobariak, bekak, laguntza planak, eta oro har, gizarte mailan erabilgarritasuna edo interesa duen edozein xedera fondo publikoak transferitzeko politika baten barruan zehaztu daitekeen oro. Gure Foru Komunitatearen esparruan, horien bilakaerak eta garrantzi koantitatiboak ehuneko handia jotzen dute Nafarroako Aurrekontu Orokorrek betetzean.

Nafarroako Foru Komunitatean, dirulaguntzen erregimen ekonomiko eta finantzieroa, funtsean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 60 eta 61. artikuluetan ezarrita dago, eta bertan hatsapen arauemaile orokorrak zehazten dira eta laguntzak kobratu ahal izateko onuradunek bildu behar dituzten aurretiko hainbat baldintza ezartzen dira, hori guztia, laguntza konkretuen kudeaketa arautzen dituzten berariazko hainbat arau izatearen kalteetan gabe.

Laguntza publiko hauek izapidatu eta emateko jarduketa administratibo anitz izateak nahiz esparru arauemaile amankomun baten gabeziak Nafarroako Foru Komunitateko dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruzko alderdi orokorrak oinarrizko arau bakar batean ematea eskatzen dute.

Foru Lege honen helburua fondo publiko hauen kudeaketa eta kontrolaren zenbait alderdi-

tan aurrera joateko beharrari erantzutea da, hatsapenak, kontzeptuak, irizpideak, eskumenak, betebeharrak eta erantzukizunak ezarriz, laguntza ekonomiko hauek behar duten kontrola eta gardentasuna eta jarduketa administratibo orok inguratu behar dituzten eraginkortasun eta zintzotasun hatsapenak uztartuko dituztenak.

Foru Legea 27 artikuluk, xedapen iragankor batek, xedapen indargabetzaile batek eta bi azken xedapenek osatzen dute.

1. artikulutik 4.era, biak barne, Foru Legearen erregimen juridikoa, kontzeptua eta publikotasun, konkurrentzia eta objektibotasun oinarritzko hatsapen zuzentzaileak zedarritzen dira. Nafarroako Foru Komunitateko laguntzak zein Europako Batasuneko fondoekin finantzatzen direnak arautzen dira, Europako Elkarteko Zuzenbidearen nagusitasuna gordez, eta horregatik Foru Lege honetan ezarritakoa euren sorreran Europako Batasuneko arautegiari erantzuten dioten dirulaguntzak emateko prozeduraren ordeztatik aplikagarri da.

5. artikulutik 8.era, biak barne, laguntza publikoak emateko organo eskudunak, oinarri arauemaileen gutxieneko edukia eta onuradunen betebeharrak jasotzen dira.

9 eta 14. artikuluen bitartean emakidari buruzko prozedura orokorra finkatzen da, hasiera, izapidatze eta ebazpen faseei dagokienez. Azpimarratu beharrekoa da kudeaketa organoen erantzukizuna, onuradunak izan daitezkeenak aztertu, ebaluatu eta proposatzerakoan.

15. artikuluan fondo publikoak entitate laguntzaileen bitartez eman edo banatzeko aukera aipatzen da, entitate horiek definituz eta prozesuan dituzten betebeharrak zehaztuz.

16.etik 21.era bitarteko artikuluek, biak barne, edozein jarduerarako ekarpen publikoak dituen mugak bildu eta ordainketa, justifikazioa eta, hala badagokio, laguntzen aplikazioaren egiaztatze materialaren erak finkatzen dituzte. Halaber, dirulaguntzen itzulketak zehazten da, fondoek gainera baldintzen edo oinarri arauemaileen edozein ezbetetzeren aurrean.

22 eta 23. artikuluek bidea ematen diote laguntzak onuradunak Foru Komunitateko Administrazioarekin izan ditzakeen zorren bidez konpentsatzeari, eta arau hausteei eta aplikatu beharreko zehapenei buruzko erregimen orokorra ezartzen dute.

24 eta 26. artikuluen bitartean kontrol prozedurak adierazten dira, eskudun diren organoek aplikatu ditzaketeenak, kudeaketari dagozkion kontro-

lak zein kontuhartzaitzak eta finantzari buruzkoa ere aipatuz.

27. artikulua balizko delitu fiskalak zehazteko aukera aurreikusten du, bidegabeko erabilerak egin edo laguntzak eman eta erabiltzeko prozeduran zehar kontuan harturiko datu errealek ezkutatzen badira.

Azkenik, ezartzen da Foru Lege hau indarrean sartu baino lehenago emandako xedapenen babesean egindako deialdiei dagozkien dirulaguntzak, horietan ezarritakoaren arabera zuzenduko direla.

I. Kapitula Xedapen orokorrak

1. artikulua. Erregimen juridikoa

Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen emakida, kudeaketa eta kontrolari buruzko erregimen orokorra Foru Lege honek eta honen garapeneko erregelamendu-xedapenek arautuko dute, berariazko lege edo erregelamendu ezeari.

2. artikulua. Kontzeptua.

Foru Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira dirulaguntzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak eta horren erakunde autonomoek fondo publikoen gainean egindako edozein erabilera, hau dohainekoa eta gizarte-erabilgarritasun edo interes sozialeko jardura bat sustatu edo helburu publiko baten lorpena bultzatzeko bada.

b) Europako Batasuneko fondoak, aurreko idatzian azalduriko jarduerak edo xedeak osorik edo hein batean finantzatzen badituzte.

Azken hauei dagokienez, Foru Lege honetan xedatutakoa Europako Batasuneko arauetan edo horiek garatu edo bertaratzeko egindako arau nazionaletan ezarritakoaren osagarri gisa erabiliko da.

3. artikulua. Hatsapen zuzentzaileak.

Dirulaguntzen emakida publikotasun, konkurrentzia eta objektibotasun hatsapenei egokituko zaie.

4. artikulua. Salbuespenak.

1. Publikotasuna ez da beharrezkoa izango dirulaguntzek esleipena izendaturik baldin badute Nafarroako Aurrekontu Orokorretan edo horien emate eta zenbatekoa lege-xedapen baten ondorioz eskatu ahal bazaizkie Nafarroako Foru Komu-

nitateko Administrazioari edo horren erakunde autonomoi.

2. Halaber, eta salbuespen gisa, publikotasun eta konkurrentzia hatsapenak ez dira beharrezkoak izango, dirulaguntzaren xedeagatik hartzailea zehazturik badago eta beste edozein interesatuk parte hartzeko aukerarik ez badu. Kasu honetan, dirulaguntzaren erabilgarritasuna, gizarte-interesa edo helburu publiko baten lorpena arrazoitu beharko dira, baita aipatu hatsapen zuzentzaileak aplikatzeko ezintasuna justifikatu ere.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren arabera emandako dirulaguntzak lankidetza-akordio edo hitzarmenen bidez gauzatu dira; horiek dirulaguntzei buruzko oinarri arauemaileak ezarriko dituzte, Foru Lege honetan jasotako aurreikuspenekin bat, publikotasun eta konkurrentzia hatsapenei dagokienean izan ezik.

Hala ere, eta dagokion emakida-ebazpenean arrazoituz gero, salbuetsi ahal izango da aipatu akordio edo hitzarmenak ezartzea, organo emaileak, dirulaguntzaren beraren inguruabarrak direla eta, egokitzen jotzen dituen banakako kasuetan. Horrela izanez gero, emakida-ebazpenak berak dirulaguntzari aplikatu beharko zaizkion arautze-baldintzak ezarriko ditu, Foru Lege honetan ezarritakoarekin bat.

II. Kapitulua. **Dirulaguntzak ematea**

5. artikulua. Eskumena.

1. Nafarroako Gobernuako Kontseilarien eta Erakunde Autonomoen Zuzendari-Kudeatzaileen eskumena da dirulaguntzen emakida, euren esku-menen esparruan eta horretarako alde aurretik aurrekontu-kontsignazioa baldin badago, eskumen hori eskuordetzeko ahalmenaren kaltetan gabe.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gora behera, Nafarroako Gobernuaren Erabakia beharko da kapital dirulaguntzen emakida baimentzeko, onetsi behar den gastua 150 milioi pezeta baino handiagoa denean. Gobernuaren baimenak berarekin ekarriko du dagokion gastuaren onspena.

3. Emakida, dirulaguntzaren helburua edo izaerarekin bat, lehiaketa bidez egiten bada, ebazpen-proposamena loteslea izango da eta organo kolegiatu batek egin beharko du; organo horren osaketa oinarri arauemaileetan ezarriko da.

6. artikulua. Aurretiko iharduketak.

1. Ezingo da dirulaguntzak emateko prozedura hasi, alde aurretik organo eskudunak dirulagun-

tzari buruzko araua edo deialdia eta dagozkion oinarri arauemaileak ezarri ez baditu, horiek aurretik izatearen kasuan salbu.

Aurreko lerroaldean azaldutako betebeharretik Foru Lege honetako 4. artikuluan aipaturiko dirulaguntzak daude salbuetsiak.

2. Dirulaguntzei buruzko deialdiek dagokien gastua aplikatzeko aurrekontu-kredituen berariazko aipamena jasoko dute.

Aurrekoa gora behera, modu arrazoitu batez deialdi batek aurrekontu-ekitaldiari aurrea hartuko balio eta aurreko lerroaldean aipaturiko kredituak ezagutuko ez balira, horretarako Nafarroako Aurrekontuetan gaitzea aurreikusten direnen aipamen generikoa egingo da, dirulaguntzak ematea ekitaldi horretan kredituak izatera baldintzapez.

3. Dirulaguntzaren izaerak ondorengo ekitaldiarako eragiten baditu gastuak, horietarako baimena Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 41. artikuluan ezarritakoaren arabera emango da.

4. Aurreko puntuan ezarritakoaren ondorioetarako, ez dira urteanitzeko gastutzat joko urteroko deialdia izaten duten dirulaguntzak, horiek hein batean bi aurrekontu-ekitaldi ukitzen badituzte.

Kasu honetan, ondorengo aurrekontuaren kargura harturiko gastu-konpromezuak ez du gaintutuko aurreko ekitaldia horretarako kontsignaturiko zenbatekoa.

7. artikulua. Oinarri arauemaileak.

1. Dirulaguntzak emateari buruzko oinarri arauemaileak, gutxienez, honako puntu hauek bilduko dituzte:

a) Dirulaguntzaren xedearen definizioa.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa edo bere banakako kopurua zehazteko era, beti ere alde aurretik zehaztu ahal baldin bada.

c) Onuradunek dirulaguntza erdiesteko bete beharko dituzten baldintzak eta horiek egiaztatze-ko era eta, hala badagokio, iraun beharko duten aldia.

d) Eskabidea aurkeztu eta eskatutako baldintzak egiaztatze epeak.

e) Modua, lehentasunak, irizpideak eta, oro har, dirulaguntza emateak izan behar dituen ezau-garriak.

f) Hala badagokio, Foru Lege honetako 5. artikuluan aipatu den organo kolegiatuaren osaketa; organo hori gutxienez, dirulaguntzaren kudeake-

tarekin zerikusia duten hiru pertsonak osatu behar dute.

g) Emakida ebazteko organo eskudunak izango duen epea eta , hala badagokio, ustezko ebazpen positiboaren ondorioak.

h) Foru Lege honetako 15. artikulua aipatzen dituen pertsona juridikoek bete behar dituzten kaudimen-baldintzak.

i) Onuradunaren betebeharrak eta, hala egokitzuz gero, Foru Lege honetako 15. artikulua aipatzen dituen entitate laguntzaileenak, baita euren betebeharrak ez betetzeak eragindako ondorioak ere.

j) Onuradunak, edo entitate laguntzaileak, dirulaguntza emateko xedea bete dela eta hartutako fondoak erabili direla justifikatzeko dituzten epea eta modu baliouduna, egindako gastuari zein horien ordaintzeari dagokienez, Foru Lege honetako 19. artikuluan ezarritako mugara bitartean.

k) Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak eta, beharrezkoa izatera, onuradunei eskatzen ahal zaizkien bermeen era eta kopurua, emandako dirulaguntzen gainean ordainketa-aurrerakinak aurreikusten direnean.

l) Interes publikoen alde beharrezkotzat jo daitezkeen berme-neurriak nahiz, hala egokitzuz gero, emandako dirulaguntzak aztertu behar diren kasuak.

m) Administrazioak berak, bestelako Administrazioek, bestelako erakunde publiko edo pribatuak edo partikularrek, naziokoek zein nazioartekoek, emandako dirulaguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna, horrela erabakiz gero.

n) Departamentu emaileak edo Toki Administrazio Departamentuak entitatearen egoera ekonomikoari buruz eta dagokion parte finantzatzeko duen gaitasunari buruz egindako txostena espedienteari eranstearen beharra, Toki Entitatei hein batean euren kargura finantzatu behar diren obrak egiteko dirulaguntzak ematen zaizkien kasuetan, beti ere obrari buruzko proiektuaren zenbateko osoak 20 milioi pezeta baino gehiago jotzen badu.

ñ) Oinarri arauemaileak eta deialdiaren kontra aurkeztu daitezkeen errekurtso administratiboak.

2. Oinarri arauemaileen onespenez proposamen gorpuztuko duen espedienteak horiek Zuzenbidearekin bat etortzeari buruzko txosten juridikoa izan beharko du.

3. Arauak, eta, hala egokitzuz gero, dirulaguntzei buruzko deialdiak eta euren oinarri arauemaileak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Foru Lege honetako 4. artikuluan ezarritakoak izan ezik.

8. artikulua. Onuradunak.

1. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da fondo publikoak jasotzen dituen, hura ematea arrazoitu zuen jarduera burutu behar duena edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran dagoena.

2. Hona onuradunaren betebeharrak:

a) Dirulaguntza ematea arrazoitzen duten jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.

b) Jarduera burutu dela edo jokabidea hartu dela justifikatzea, baita dirulaguntzaren emakida edo gozamina mugatzen dituzten betekizun eta baldintzak bete direla ere.

c) Horretarako eskumena duten organoek egindako edozein egiaztatze-iharduerari makurtzea, emandako edo hartutako dirulaguntzei dagoenez.

d) Organo emaileari edo, hala badagokio, entitate laguntzaileari gaitzitzea helburu berbera duten beste dirulaguntza batzuk eskatu edo lortu direla.

e) Nafarroako Ogasun Publikoarekiko betebeharrak bete direla egiaztatzea, dirulaguntza kobratu aurretik eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak ezarritako duen eran.

f) Indarreko arautegiaren arabera kontabilitatea edo erregistro-liburuak izan behar dituzten onuradunek horietan erregistratzea jasotako dirulaguntzaren kobrantza.

3. Aurreko zenbakiko e) letran aurreikusitako betebeharra gabetu ahal izango da ezarritako diren kasuetan.

III. Kapitulua

Dirulaguntzak emateko jardunbidea

9. artikulua. Hasiera.

1. Dirulaguntzak emateko jardunbidea ofizioz edo interesatuaren eskabidez hasiko da; interesatuak dagokion arauak edo deialdiak ezarritako eredu eta sistema normalizatuaren arabera egin beharko du eskabidea.

2. Eskabideari dirulaguntza ezarritako arauan edo horri buruzko deialdian zehazturiko dokumentu eta informazioak gaineratuko zaizkio.

3. Eskabideak aurreko lerroaldeetan azaldutako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudu-

nak eskatuko dio interesatuari, gehienez ere hila-beteko epean zuzentzeko, eta adieraziko dio zuzentzen ez badu eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela eta espedientea beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

10. artikulua. Izapidatzea.

1. Dirulaguntzak emateko jardunbideen izapidatzea eskudunak ebazteko izendatuko duen organoari egokituko zaio.

2. Organo izapidegileak ofizios burutuko du eskabideen ebaluaketa, arauetan edo oinarri arauemaileetan ezarritako balorazio-irizpide, era eta lehentasunekin bat, eta ebazpen proposamena idatziko du.

3. Deialdiak horrela aurreikusiz gero, eskabi-deak ebaluatu ondoren, organo izapidegileak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du eta deialdi horretan ezarritakoaren eran interesatuari gaztigatuko dio, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epea emango zaiolarik.

Interesatuak azaldutako alegazioak aztertu ondoren, organo izapidegileak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan bere ebaluaketa eta hura egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuko ditu.

Dirulaguntzak emateko espedienteak organo izapidegilearen txostena bilduko du eta bertan onuradunek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko da.

11. artikulua. Ebazpena.

1. Ebazpen-proposamena ikusi ondoren, organo eskudunak dirulaguntzen emakida ebatziko du.

2. Ebazpena arrazoitua izango da, azaroaren 26ko 30/92 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Guztiendako Administrazio Jardunbidearen Legeko 54. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta beti ere hartutako ebazpenaren oinarriak egiaztatu beharko dira.

3. Ebazpenak, gutxienez, dirulaguntza ematen zaien eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko du eta, hala badagokio, berariaz jasoko da gainerako eskabideen gaitzespena.

12. artikulua. Ebazpenaren jakinarazpena.

Jardunbidearen ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie azaroaren 26ko 30/92 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Guztiendako Administrazio Jardunbidearen Legeko 58. artikuluan ezarritako eran. Arau horretako 59.5. artikuluan jasotako kasuetan jakinarazpena egin ahal izango da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu-

tzearen bidez edo iragarki-oholetan edo dirulaguntzaren arau erregulatuzailean edo horri buruzko deialdian zehaztuko den komunikabidearen bitartez.

13. artikulua. Ustezko desestimazioa.

Dirulaguntzaren arau erregulatuzailean edo horri buruzko deialdian jardunbidea ebazteko ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpenik burutu gabe iragan badu, eskabidea desestimatu-tzat joko da.

14. artikulua. Errekurtsoa.

Dirulaguntzari buruzko arauak edo deialdiak berariazko edo ustezko desestimazioaren kontra aurkeztea bidezkoa izango den errekurtsoa zehaztuko dute.

IV. Kapitulua
Dirulaguntzen kudeaketa.

15. artikulua. Entitate laguntzaileak.

1. Dirulaguntzen oinarri arauemaileek onuradunei fondo publikoen emate edo banaketa entitate laguntzaile baten bitartez egin dadila ezarri ahal izango dute.

Horretarako, entitate laguntzaile izan ahalko dute Foru Komunitateko elkarteek edo ente publikoek, nahiz nahikoa kaudimen-baldintzak betetzen dituzten bestelako pertsona juridikoek.

2. Entitate laguntzaileak emailea den Departamentu edo Erakunde Autonomoaren kontura jardungo du, dirulaguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako, baina dirulaguntza inolaz ere ez da hartuko bere ondarearen osagaitzat.

3. Hona entitate laguntzaileen betebeharrak:

a) Jasotako fondoak onuradunei ematea, dirulaguntzaren arau erregulatuzaileetan ezarritako irizpideekin bat.

b) Hala badagokio, hura emateko erabakiorrak diren baldintza edo inguruabarrak bete eta gauzatu diren egiaztatzea.

c) Jasotako fondoan erabilpena justifikatzea Departamentu edo Erakunde Autonomo emailearen aurrean eta, beharrezkoa izatera, onuradunek aurkezturiko justifikazioa aurkeztea.

d) Horretarako eskudunak diren organoek, jasotako fondo publikoei dagokienez, egin dezakeen edozein egiaztatze-jarduketari men egitea.

e) Itzultzea, osorik edo hein batean, horrela erabakiz gero eta bidezkoa bada, eta edozein jakinarazpen edo parteei ezarritako baldintzen

edo betebeharren ezbetetzeren aurrean, banatze-ko jaso dituzten fondo publikoak.

16. artikulua. Aldaketa, konkurrentzia eta muga.

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketak eta, edonola ere, bateraezinak diren dirulaguntzen lorpena aldiberean gertatzeak emakidari buruzko ebazpenaren aldaketa eragingo du.

2. Onuradunak jarduera bera egiteko emandako dirulaguntzak bateragarriak baldin badira, horien zenbatekoak ezingo du inolaz ere jo onuradunak garatu behar duen jardueraren kostua baino gehiago, soilik edo Administrazio beraren, beste Administrazio Publiko batzuen, beste ente publiko edo pribatu batzuen edo partikularren dirulaguntzekin batera.

17. artikulua. Ordainketa.

1. Oro har dirulaguntzak euren emakida eragin zuten iharduera burutu dela edo jokabide hartu dela egiaztatatu ondoren ordainduko dira.

2. Akreditazio honi darraikion ordainketa egin ahal da aldi batez, jarduera amaitzean, edo zatika, justifikazio partzialen bitartez, dirulaguntzak arautuko dituzten berariazko arauetan ezarritako baldintzetan eta betekizunekin.

3. Nafarroako Foru Komunitateko elkarte publikoak eta ente publikoen jardun-gastuak eta ohiko inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak, oro har, hiruhilabeteka eta hiruhileko natural bakoitzaren barruan ordainduko dira. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan asignazioa izendaturik duten dirulaguntzen ordainketa, aplikatu behar zaien arautegiko aurreikuspenen arabera egingo da, edo bestela, aurreko lerroaldean ezarritako eran.

4. Dagokion organo kudeatzaileak erantsiko dio ordainketa-proposamenari edo ordainketaren justifikazioari, bestela, dirulaguntzaren aurretiko ordainketa izan bada, dirulaguntza emateko izan diren helburuak zein hori kobratzeko eskubidea ematen dioten baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena.

18. artikulua. Dirulaguntzen aurrerapena.

1. Bakarrik izango da bidezkoa emandako dirulaguntzaren gaineko ordainketa aurreratzea dagozkion oinarri arauemaileetan berariaz aurreikusten baldin bada, horiek ezarritako muga, baldintza eta, hala egokituz gero, bermeekin.

2. Derrigorrez zehaztuko dira bermeak, aurrerakinak 10 milioi pezeta baino handiagoak diren

kasuetan, onuraduna Administrazio publiko bat den kasuan salbu.

19. artikulua. Fondoaren aplikazioaren justifikazioa.

1. Onuradunek justifikatu beharko dute, organo emailea edo, hala badagokie, entitate laguntzailearen aurrean eskuraturiko fondoak dirulaguntza emateko izan zen xederako erabili direla, dago-kion araudian edo oinarri arauemailean ezarritako era eta epeetan.

2. Jardueraren izaerak bide emanez gero, gastuaren justifikazioa eta horren ordainketa horiek egiaztatuko dituzten dokumentuen aurkezpenaren bidez burutu beharko dira, eta dokumento horiek, beharrezkoa izatera, martxoaren 8ko 85/1993 Foru Dekretuari egokitu beharko zaizkio.

Edonola ere, arauk edo oinarri arauemaileek zehaztu beharko dute dirulaguntza bakoitzerako aurreko lerroaldean aipaturiko justifikazioetarako balio duen dokumentu-mota.

Ordainketen justifikazioek, gutxienez emandako dirulaguntzen zenbatekoa jo beharko dute, baina betebeharrak ez da luzatzen fondo publikoek finantzatzen ez duten gehiegizko gastura.

20. artikulua. Inbertsioen egiaztapena.

1. 5 milioi pezeta baino gehiago jotzen duten kapital-dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, organo kudeatzaileak inbertsioaren egiaztapen materiala egin dela baieztatu beharko du, eta hori akta edo egiaztatze-txosten bidez jaso beharko da espedientean.

Salbuespen gisa aurreko egiaztapen materialaren ordezkiruz lagundutako jarduera burutu dela arrazoibidez eta nahikotasunez azalduko duen justifikazio dokumentala egin daiteke.

2. Oinarri arauemaileek kapital-dirulaguntzaren zatikako ordainketak edo aurrerakinak aurreikusten dituztenean, aurreko zenbakiak aipatzen duen egiaztapena haren kitapena eta azken ordainketaren unean burutuko da.

21. artikulua. Itzultzea.

1. Bidezkoa izango da eskuratutako kopuruak osorik edo hein batean itzultzea, eta dirulaguntza ordaindu den unetik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 19. artikuluan finantzuriko zenbatekoaz atzerapen-korrituak eskatzea hurrengo kasu hauetan:

a) Eskuratutako fondoaren xedea justifikatzeko betebeharra ezarritako eran eta epeetan ez bete-tzea.

b) Dirulaguntza lortzea horretarako baldintzak bete gabe, onuradunei egotzi ahal zaizkien zioak direla medio.

c) Dirulaguntza ematearen helburua ez betetzea.

d) Dirulaguntzen arteko konkurrentzia izatea, horiek bateragarriak diren kasuetan izan ezik.

e) 16. artikuluko 2 zenbakiak aipatzen duen muga gainditzea, eta muga horren gainetik gehiegizko kopuruaz.

f) Emakidarako kontuan hartu diren baldintzak aldatu edo ez betetzea, hurrengo puntuko b) atalean sartzen ez badira.

g) Oztopatzea edo uko egitea Foru Lege honetako 8. artikuluan azaldutako egiaztatze-jardunkei makurtzeko betebeharrari.

h) Berariazko arau edo oinarrietan araututako bestelako kasuak.

2. Bidezkoa izango da eskuratutako kopuruak osorik edo hein batean soilik itzultzea hurrengo kasu hauetan:

a) Dirulaguntza lortzea horretarako baldintzak bete gabe, Administrazioari egotzi ahal zaizkien zioak direla medio.

b) Emakidaren baldintzen aldaketa, Administrazioak onartzen dituenean.

c) Berariazko arau edo oinarrietan araututako bestelako kasuak.

3. Itzultzeko kopuruak zuzenbide publikoko dirusarreratzat joko dira eta horiek kobratzeko aplikagarria izango da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 17 eta 18. artikuluetan aurreikusitakoa.

4. Dirulaguntzaren itzultzeari buruzko erabakia organo emaileak hartuko du, aurretik espedienteaz izapidatuko delarik; honi zentro kudeatzailearen arrazoituriko proposamenarekin batera bidezkoak diren txostenak eta frogak eta, hala egokituz gero, onuradunaren alegazioak erantsiko zaizkio.

5. Ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio, dirusarrera egiteko tokia, era eta epea azalduz, eta ohartaraziz itzulketa epearen barruan burutzen ez badu, premiamendu bidea erabiliz aplikatuko dela bilketa-jardunbidea.

22. artikulua. Zorren konpentsazioa.

Dirulaguntza baten onuraduna Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko zorduna den kasuan, dirulaguntzaren ordainketa harekin dituen zorren

konpentsazioaren bidez egin ahalko da, arauak zehaztuko duten eran.

23. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

1. Nafarroako Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen arloan, unean uneko indarreko arautegian aurreikusitako arau-hauste eta zehapenei buruzko erregimena aplikatuko da.

2. Zehapenak horretarako eskudun diren organoek erabaki eta ezarriko dituzte.

V. Kapituluak. **Jarraipena eta kontrola.**

24. artikulua. Jarraipena.

1. Emaille diren Departamentu eta Erakunde Autonomoek justifikazio atzeratuko dirulaguntzen jarraipena burutuko dute, ezarritako epean galdaturiko baldintzak betetzea onuradunei eskatu eta dagozkien egiaztapenak egiteko.

2. Horretarako Departamentu eta Erakunde Autonomo horiek dirulaguntza horien jarraipen egokia egiteko behar diren erregistroak eramango dituzte.

25. artikulua. Laguntzeko betebeharra.

Entitate laguntzaileek, onuradunek eta dirulaguntzaren xedearekin, edo horren justifikazioarekin, zerikusirik duten hirugarrenek Foru Ogasuneko Kontuhartzailetzari dagozkion kontrol-eginkizunak betetzea errazteko betebeharra dute, eta bereziki, ikerketaren xedea diren lokalak eta dokumentazio-ara libreki iristea, baita horien kopia erdiesteko aukera ere.

26. artikulua. Fiskalizazioa eta kontrola.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dirulaguntzen kontrola burutuko du, kontuhartze-eginkizuna eta kontrol finantzieroaren bitartez.

2. Kontuhartze-eginkizuna, oro har, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legean ezarritakoarekin bat beteko da eta zehazki bilduko du:

a) Oinarri arauemaileen eta dagozkien deialdiak onesteko espedienteen aurretiko kontuhartzea.

b) Dirulaguntza emateko dokumento edo espedientearen aurretiko kontuhartzea.

c) Betebeharraren aitortpenaren aurretiko kontuhartzea.

3. Aurreko 2 zenbakiko a) ataleko aurretiko kontuhartzea hurrengo hauen egiaztapenean gautatuko da:

a) Foru Lege honetako 7. artikulua aipatzen duen txosten juridikoa izatea.

b) Foru Lege honetako 6.2. artikuluan aipatzen diren aurrekontu-kredituen aipamena deialdietan izatea.

c) Espedientea onesteko aurkezten zaion organoaren eskumena.

4. Dirulaguntza emateko dokumentu edo espedientearen aurretiko kontuhartzea dagokion ebazpena eman aurretik horien edukia egiaztatzean gauzatuko da, kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datozela ziurtatzeko.

5. Betebeharraren aitopenen aurretiko kontuhartzea, dagokion ebazpena eman aurretik betebeharrak dirulaguntzaren emakida baimendu zuen indarreko xedapen edo arautegiari egokitzen zaizkiola eta onuradunak bere betebeharra bete duela egiaztatzean gauzatuko da.

6. Aurreko 4 eta 5. puntuetan ezarritakoa gora behera, espedienteen muntak eskatuz gero eta arrazoi bidez neurturiko bestelako inguruabarrek kontrola mugatzea aholkatzen badute, espedienteak izapidatzean arintasun handiagoa lortu eta horretarako baliabideak hobeki erabiltzeko, emakida zein betebeharraren aitopenez espedienteen kontuhartzea lagin-prozedurak edo tekniken bitartez egin ahal izango da, Nafarroako Gobernuak arau bidez ezarriko duen eran eta Kontuhartzaile Nagusiak txostena eman ondoren.

7. Aurreko 1. zenbakiak aipatzen duen kontrol finantzieroa hurrengo jarduketak bildu ahal izango ditu:

a) Dirulaguntza emateko onuradunei galdaturiko betekizunak, baldintzak eta betebeharrak bete dituztela zein jasotako fondo publikoak dagokien helbururako zuzen erabiltzen direla egiaztatzea.

b) Beharrezkoa izatera, dirulaguntzak onuradunen kontabilitatean edo erregistro-liburuetan zuzen islatzen direla egiaztatzea.

c) Arau bidez ezar daitezkeen beste edozein jarduketa.

8. Ikuskaritza eta kontrol eginkizunak betetzean jasotako dirulaguntzaren lorpen, helburu edo justifikazio okerren zantzuak antzematen badira, horiek egiteko ardura duten agenteek beharrezkotzat jotako kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte, eginkizun haiei dagozkien dokumentuen desagerpena, deuseztapena edo aldaketa eragozteko.

Hartuako neurriek inolaz ere ez diote kalterik eragingo onuradunei eta, edonola ere, jarraitzen zaion helbururako egokiak izango dira.

27. artikulua. Zerga-delituaren gaineko zantzuak.

Horretarako eskudunak diren organoek eginga edozein egiaztatze-jarduketaren ondorioz, onuradunak Nafarroako Ogasun Publikoaren kontrako balizko delitu bat egiten ahal duela agerian ezartzen bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta Departamentu edo Erakunde Autonomo emaileari emango zaie horren berri, behar diren neurriak har ditzaten.

Xedapen Iragankorra

Foru Lege hau indarrean sartu aurretik emandako xedapenen babesean egindako deialdiei dagozkien dirulaguntzak haietan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Xedapen Indargabetzailea

Indargabeturik gelditu dira Foru Lege honetan ezarritakoari aurre egin edo kontrajartzen zaizkion lerrun bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta bereziki azaroaren 23ko 10/1990 Osasunari buruzko Foru Legeko IX. tituluko II. Kapitulua.

Azken Xedapenak

Lehena. Foru Lege honetako edukia arau bidez garatzeko ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari.

Bigarrena. Foru Lege honetan bildutako arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996eko ekainaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzko Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzko Foru Lege proiektua ohiko ihardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1996ko irailaren 30eko 12etan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa

ZIOEN ADIERAZPENA

Nafarroako Parlamentuak industri politikarako eta inbertsioa eta enplegua sustatzeko koiuntura-neurrii buruzko Araua eman zuenetik, 1982ko ekainean hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak lan eskerga egin du industrietarako lurak sustatzen Nafarroako zenbait alderditan, eta horren barrenean ere sartzen da Udal eta Kontzejuei emandako laguntza tokian tokiko udalerrietan industrietarako lurak sor ditzaten, horretarako korriturik gabeko aurrerakinak emanez.

Nafarroako Gobernuak zuzenean sustatutako industrialdeak orain arte izan dira eskualdeko izaerakoak, eta horregatik udalerrizko industrialdeak sustatu ziren osagarri gisa, arestiko Arauko 14. artikuluan Udal eta Kontzejuen ekimenak bultzatzeko dirulaguntzak hasiera batez ezarrita. Laguntza horien zenbatekoak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean aldizka aldatu izan dira.

Azkenik, ikusirik gero eta eskari haundiago bati oraingo baliabide publikoekin behar bezala ezin erantzun zaiola eta proiektu zenbaiten bideragarritasun ekonomikoa ezin bermatu zela, 1993ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legearen bidez ezarri zen, 35.5 artikuluan hain zuzen ere, gastuetarako konpromezu gehiago ezin hartuko zirela industrietarako udal lurzorua sustatzeko laguntzen planeko industrietarako lurzorua sustatzeko Proiektuaren kargura, industri politikarako Inbertsioa eta Enplegua sustatzeko koiuntura-neurrii buruzko Arauko 14. artikuluan ezarri eta arautzen baitira. Halaber, Foru Lege horrek agindua eman zuen deialdi bat egiteko, alegia, Toki Entitate interesatuek eskabideak aurkez zitzaten beste udal ekimeneko industri lurzorua sustatzeko Jarduketa Plan baterako, eta horiek ikusita, Nafarroako Gobernuak jarduketan Plan Urteanitza gauzatu eta Parlamentuan aurkez dezan.

1993ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez deialdia egin zen eta haren ondorioz bidezko da beste arautegi bat ezartzea toki entitateek industrietarako lurzorua sortzeko jaso ditzaketan dirulaguntza publikoak arautzeko, gaur egungo inguruabar eta beharrei egokitzeko helburuz.

Orain egiten den berrikuspenak hobeki zehaztuko du udaletako zein ekintza lagundu behar diren, eta bestetik finkatu egiten du zein diren iherri mailako jarduera ekonomikoak jartzeko industrialdeak, hau da, berrikuspen honek gainditu egiten du orain arteko irizpide murriztailea zeinetan industri erabileretarako bakarrik onartzen baitzen. Horrela bada, industrialde horiek mesedegarri dirateke hiriguneetako industri karga arintzeko, izan ere zenbait jarduera desegokiro kokatuak izategatik nahiz instalazioak haunditu nahi dituztelako, eraman egiten dira industrialdeetara. Halaber, industrialde horietan kokatu daitezke herri mailako beharrei ongi egokitzen zaizkien jarduerak (tailerrak, biltegiak, industria xeheak, zerbitzuak, etab.).

Industrialdea egin nahi bada lur batean, lur horrek behar du nahitaez industri edo zerbitzueta-rako lurzoru urbanizagarriaren kalifikaziokoa izan, edo izaera hori behar du lortu, eta gainera bermatu behar da lur horiek udalarenak direla, eta horretarako desjabetzapen sistema erabiliko da, beharrezkoa bada.

Bestetik ere, lortu nahi da proiektu horiek gutxienez baldintza eta ezaugarri batzuk bete-tzea, haien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa bermatzeko, eta horregatik hain zuzen ere ezartzen da lurzatiaren eskariak gutxienez behar duela izan lurzati guztien % 30ekoa, beti ere proiektua egokitu beharko delarik egiazko eskarietara, eta behar diren ekarpen ekonomikoak jarriko dira enpresa eskatzaileak eta udal sustatzaileak elkartzeko asmoz, horrela bermatuko baita, Nafarroako Gobernuaren laguntzekin batera, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa.

Aurreikusten diren laguntzak, egokienak direla uste baita, funtsean hitzartutako maileguen edo kredituen korrituak berdintzeko adinako dirulaguntzak dira, haren puska nagusia lanen kostuaren % 50 izanen baita, edo % 60 industrialdea alditan egiten baldin bada, eta horrela, finantzazioaren gainerakoa enpresa eskatzaileen eta proiektua sustatu duen udalaren artean paratuko da.

Halaber, Foru Lege honetan ezarritako laguntzen arautegian sartzeko hasierako erabakiak bere baitan bilten du sustapen proiektuaren osotasuna (proiektu teknikoak eta urbanizazio eta azpiegitura lanak), eta gero batean egiten da, egiazko kostuak ezagututa, onuren zehaztapen zehatza.

1. artikulua. Xedea

Foru Lege honen xedea da Nafarroako toki entitateendako dirulaguntzen irispidea, modua eta baldintzak arautzea, laguntza horiek herri mailako jarduera ekonomikoak paratzeko industrialdeen urbanizazio proiektuak egin eta aurrera eramateko.

2. artikulua. Herri mailako jarduera ekonomikoetarako industrialdeak.

Foru Lege honen ondorioetarako, herri mailako jarduera ekonomikoetarako industrialdeak dira hiriguneak arintzeko asmoz egiten direnak, egungo jardueren lekualdaketa sustatuz, kokagune desegokian daudelako edo haien instalazioak haunditu nahi dituztelako. Halaber, aurreikusten da proiektu txikiak onartzea, herri mailako bizimodu eta beharrekin lotura haundiak dituztenak, alegia, tailerrak, biltegiak, industria xeheak eta horrelatsukoak, edo agian, kanpoko enpresen proiektu txikiak bertan hartzeko.

3. artikulua. Baldintzak

Nafarroako toki entitateak dira dirulaguntza hauen helburu eta, beraz, onuradun izan daitezke, baldin eta jarduera ekonomikoetarako industrialdeak sustatu nahi badituzte, eta ondoko baldintzen barrenean badira:

a) Industrialdea jarri nahi den lurzoru hirilurzoru edota lurzoru urbanizagarria izatea, indarra duen Udal Planeamenduan industria nahiz zerbitzueta-rako.

b) Lurzoruren bat ukitua suertatzen bada, indarrean dagoen planeamenduak ezartzen duen jarduketa sistema desjabetzapenarena izatea, dago-kion exekuzio unitaterako, menpekotzak eta kanpo zerbitzuak barne, hori toki entitatearena ez bada.

c) Hasiera batez antolatu behar den azalera herrian dauden beharrekin eta egiazko eskakizunekin bat etortzea, lurzatietatik heldu den azalera garbia 20.000 m²-koa izatea gutxi gorabehera.

Salbuespen gisa, azalera haundiagoak ere onar daitezke enpresa baten lekualdaketa edota handipena beharrezkoa denean eta jabeen aldetik lekualdaketa nahiz handipena egiteko konpromezu formala dagoenean.

d) Lurzati eskaria arrazoizkoa izatea, hain zuzen ere aurreikusitako urbanizazioaren lehenbiziko fasean, Industrialdeko lurzati garbien azalaren % 30 gutxienez hasiera batez okupatzeko adinakoa.

e) Toki entitateak konpromezua hartzea jarduketaren ondorioz aterako diren lurzatiak ez dituela salduko, inolaz ere, kostua baino merkeago, dirulaguntzak eta aurreikusten diren hobari fiskalak kontutan hartu gabe.

f) Toki Administrazioiko Departamentuak oniritzia ematea, Industrialdea sustatzearen ondorioz heldu diren gastuei aurre egiteko, toki entitateak ahalmen ekonomikoa nahikoa baduela azalduz.

4. artikulua. Onura aplikagarriak.

Nafarroako Gobernuaren laguntzak, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren bidez, herri mailako jarduera ekonomikoetarako industrialdeak sustatzen dituzten Nafarroako toki entitateei emanen dizkienak, honakoak dira:

1.- % 70ko dirulaguntza, Exekuzio Unitatea erabat garatzeko behar diren proiektuen kosturako, beti ere Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeko 89, 98 eta 99. artikuluetan arautua dagoenaren arabera.

2.- Kredituak sor ditzakeen korrituak estaltzeko dirulaguntza, baldin eta haren puska nagusia Industrialdearen urbanizazio lanen kostuaren % 50 baldin bada eta, hala balitz, lurra erosteko kostua. Korritu-tasa izanen da Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuarekin Lankidetzaren Hitzarmena espreski sinatua duten entitate finantzieroekin hitzartutakoa bera, hamar urteko epean, eta horietako lehenbiziko biak gabealdikoak izanik eta puska nagusia hurrengo zortzietan amortizatuko delarik seihileko berdinetan ordainketak eginez.

Lanak zenbait alditan egiten direnean, dirulaguntza kalkulatu da lehenbiziko aldiaren kostuaren % 60aren gainean eta, hala balitz, lurra erosteko kostuaren gainean.

Industrialdearen lehenbiziko aldi hori egin beharko da beti ere haren azalera osoaren % 60 gainditu gabe.

3.- Industrialdeak sortzeko helburuz egindako lurzoru aldaketaren ondorioz toki entitateari aplikatzen zaion Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren % 95eko hobaria, baita toki entitateek bertan kokatzen diren enpresei egiten dizkieten gainekoak.

5. artikulua. Gaurko Udal Industrialdeetako azpiegituren eskasiak eta mentsak.

Arestiko artikuluko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako laguntzak aplikatzen ahal dira egun kontsolidaturik dauden udal industrialdeetako azpiegitura eta urbanizazio mailako eskasiak eta mentsak estaltzeko, eta horrela balitz, erreferentziako mailaguen puska nagusia hobekuntzarako azpiegituren kostuaren % 40ra irits daiteke.

Industrialde kontsolidatuak izanen dira lurzatiaren azalera osoaren % 70 gutxienez industriek edota jarduera ekonomikoek hartua baldin bada.

6. artikulua. Deialdiak.

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak urtero eginen du deialdia Foru Lege honetan aurreikusitako laguntzak emateko, eta horretarako eskatzen den dokumentazioa aurkezteko egunak eta epeak finkatuko ditu.

7. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.

Toki entitate interesatuek, deialdian zehaztutako epearen barrenean, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, gutxienez:

– Ukitu behar diren lurren kalifikazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eta toki entitatearen planeamenduan aurreikusita dagoen jarduketaren sistema,

eta bertan zehaztu beharko da lur horiek herrilurak diren ala ez.

– Dagoen lurzati-eskariari buruzko datuak eta eskatzaileen konpromezuaren zenbaterainokoa.

– Toki entitatearen erabakia, izan daitezkeen lurzatiak saltzeko konpromezua hartuko duela egiaztatzen duena, beti ere kostuaren zenbatekotik, jasotako dirulaguntzak kenduta, inolaz ere jaitsi gabe.

– Balorazio Txosten Teknikoa eta Bideragarritasun Aurreazterketa, eta bertan era arrazoitu eta zehaztuan ondoko inguruabarrak bildu behar dira: proiektuak esleitzeko eta idazketa egiteko aurreikusten diren epeak, hirigintzako tramiteak, behar diren lurra zein diren eta lanen esleipena eta exekuzioa, baita aurreikusten diren kostuak eta dirusarreraren eta ordainketen plana ere, finantzaketa iturriak zehaztuz.

– Hala balitz, urbanizazio lanen proiektua, behar bezala onetsita.

8. artikulua. Tramitazioa.

1.- Deialdiaren epeak bukatuta, espediente bakoitzean aurkeztutako dokumentazioa Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuko Zerbitzu Teknikoek begiratu dute, eskatutako baldintzak eta proiektuaren bideragarritasuna betetzen direla bermatzeko.

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak dirulaguntzak emateari buruzko erabakia eman baino lehen, Toki Administrazioako Departamentuari aginduzko txostena eskatu beharko zaio industrialdeak sortuko dituen obligazioei aurre egiteko eskatzaileak duen gaitasun ekonomikoari buruz. Delako txostena loteslea izanen da aurkako baldin bada.

Ondorio horietarako, gaitasun ekonomikoa finkatu ahal izateko ondoko zera hauek hartuko dira kontutan:

a) Eskabideak egin aurreko urteko kontuen itxieran toki entitateak izandako aurrezki garbia, hau da, ohiko dirusarreraren (1.etik 5. kapitulara) eta ohiko gastuen (1, 2, 3, 4 eta 9. kapituluak) arteko aldea.

b) Lurzatiak saltzeagatik izandako dirusarrerak, eta horiek zehaztuko dira hasierakoei urte bakoitzeko aurreikusitako salmenten % 10 gehituta.

c) Industrialdea finantzatzeko entitate finantzieroekin sinatu beharreko kredituetatik heldu diren ordainketek sortutakoak.

d) Toki entitateak egindako bestelako inbertsioetatik heldu diren konpromezuak.

2.- Lehentasun irizpideak laguntzak ematera-koan:

Ekitaldi bakoitzeko Gastuen Aurrekontuan horretarako kontsignaturiko zenbatekoen arabera, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak laguntzen ematea ebatziko du, ondoko hautapen irizpideei jarraikiz:

– Egun dauden jarduerak lekuz aldatu beharra, bai kokagune desegokian daudelako bai jarduera haunditu behar delako, baita jarduera berriak kokatzeko dauden eskariak ere.

– Lurzatiak eskatu dituztenen konpromezuaren zenbaterainokoa.

– Lurzatiaren egiazko eskariak duen eragina lanpostuak mantendu edota berriak sortzeko.

– Proiektua Foru Lege honetan ezarritako irizpideekin bat datorren ala ez, ondoko alor hauetan: proiektuak neurrietan edo haren aldi desberdinetan doikuntza egokiagoa, dauden egiazko eskakizunak, eta lurren, urbanizazio lanen eta azpiegituren kostuak jeistea.

– Proiektuaren garapenerako aurreikusitako epe laburragoak, hura lehenago exekutatzeko eta dirulaguntza hauen helburu diren fondoak arinago erabiltzeko.

– Eskualdeko industrialdeetako lurzatiak eskuratzeko beste aukerarik ez izatea.

9. artikulua. Laguntzak ematea eta ordaintzea.

1. Arestiko artikuluan aipatu diren txostenak ikusita, eta bertan zehazten diren irizpideekin bat etorritik, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak erabakia hartuko du honako laguntzen araubidean deialdiaren bidez toki entitateek aurkeztutako proiektuak sartuko diren ala ez.

Sartzen badira behin-behineko sartuko dira eta 4. artikuluko 1. eta 2. idaztietan azaltzen diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa zehaztuko da.

Aipatu dirulaguntzen zenbatekoa ondoko eran finkatuko da:

a) Hirigintzako dokumentuen eta proiektuen kostuaren % 70eko dirulaguntzari dagokionez, 7. artikuluan aipatu den dokumentaziorako aurreikusten den kostua hartuko da erreferentziatzat, beti ere Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak egiaztatuta.

b) Urbanizazio lanendako dirulaguntza hasiera batez emateko kontutan hartuko da 7. artikuluan aipatu den Balorazio Txosten Teknikoaren aurre-

kontua eta horri gehituko zaio, hala balitz, erositako lurren gutxi gorabeherako kostua, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak aurretik ateratako balorazioaren arabera, eskualdeko industrialdeetan antzeko egoeratan izandako salneurriak ikusita.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da erreferentziako kredituaren puska nagusiari, eta haren iraunaldian zehar, korritu-tasa aplikatuz, hain zuzen ere finantza entitateekin sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean kalkulua egiteko unean indarra duen korritu-tasa aplikatuz.

2. Proiektuen idazketaren eta gainerako hiri-gintzako dokumentuen kostua behin ezagutuz gero, hasiera batez emandako dirulaguntzak behin-betikoak izanen dira eta une horretantxe eginen dira behar diren doikuntzak, idazketaren kostuak hasieran aurreikusitakoak baino txikiagoak izan baldin badira.

Dirulaguntza horren ordainketa eginen da baldin eta idatzitako proiektu edota dokumentu bakoitza oso-osorik badago, eta aurretik Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren oniritzia badute.

3. Urbanizazio lanen dirulaguntza behin betikoa izanen da horiek esleitu ondoren, beti ere toki entitateak egiaztatzen baldin badu ondoko baldintzak bete dituela:

a) Ukitutako lur eta zerbitzuen eskuragarritasuna, lanen bideragarritasuna bermatzeko.

b) Lurzatiak eskatu dituztenen konpromezu formala, Industrialdean sortzen diren lurzatiaren % 30 gutxienez eskuratuko dituztela, hitzartutako salneurria, egutegia eta ordaintzeko modua zehaztuz.

Nolanahi ere den, lanen esleipenaren salneurria hasieran aurreikusitako kostua baino txikiagoa baldin bada, behar diren doikuntzak eginen dira dirulaguntza esleipenaren salneurriari egokitzeko.

Dirulaguntza honen ordainketa eginen da urbanizazio lanak hasi eta berehala.

10. artikulua. Emandako dirulaguntzak galdu edo murriztea, ez-betetze kasuan.

Onuradun suertatzen diren toki entitateek Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuan aurkeztu beharko dute, lanak bukatu ondoren, haien burutzea eta kostua egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Aipatu Departamentuak edozein unetan eska dezake egoki juzkatzen dituen argibideak, lanen

burutzeari buruz nahiz Industrialdeko lurzatiei salmentei buruz.

Dirulaguntzak emateko ebazpenetan finkatutako baldintzak erabat nahiz hein batean ez betetzeak, edo Foru Lege honetan eskatutako baldintzen bat ez betetzeak, berekin dakar emandako dirulaguntzak galtzea edo murriztea.

Horrelako ebazpenik bada, arrazoiak eman beharko dira eta bereziki dagokion entitateari behar bezala jakinarazi.

Xedapen Iragankorra

Toki entitateak Foru Lege honetan ezarritako onuradun izan daitezke, hain zuzen ere 1993ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legeak indarra hartu ondotik hasiak baldin bazituzten industrietarako udal lurzorua sustatzeko ekintzak eta Foru Lege honek indarra hartu aurretik proiektu eta lanetan inbertsioak eginak baldin bazituzten.

Aipatu ekintzek bete beharko dituzte Foru Lege honetan ezarritako beharkizun eta baldintzak eta horretarako egiten diren deialdietara agertu beharko dute.

Azken Xedapenak

Lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari aurrekontuetan behar adina aldaketa egiteko Proiektuen kostuen % 70erainoko dirulaguntzak (98006-2 lerroa) izeneko 81130-7600-5351 kontusailean, handitzeko ahalmena eman baitzaio, Foru Lege hau aplikatzen sortzen ahal diren gastuei, ekitaldi honen barrenean beti ere, behar diren zenbatekoekin hornitzeko.

Bigarrena. 1997ko eta hurrengo aurrekontuetan kontsignatuko dira pagamendu-konpromezuak, hain zuzen ere Lege honen neurriak aplikatzen heldu daitezkeenak.

Hirugarrena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau betetzeko eta aurrera eramateko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean berean.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrrik gabe gelditzen da Indutri Politikarako eta Inbertsioa eta Enplegua Sustatzeko Koiuntura-neurriei buruzko Arauko 14. artikulua.

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko uztailaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzenekoa eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak aurkezteko epe bat irekitzea. Epe hori **proiektua eztabaidatuko duen Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 12etan bukatuko da.** Berauek Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu behar dira.

Hirugarrena.- Aipatu proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuan agerian geratu da aurrekontu-dotazioa gehitu beharra, 1996/1997 ikasturteko irakasle eta

orientatzaileen langile-gastu handiagoei aurre egiteko.

Horrenbestez, premia horiek betetzeko, behar den kreditu-osagarri bat ematen zaio, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1. artikulua. 734.436.421 pezetako kreditu-osagarria ematen da Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuaren beharrak betetzeko. Kreditu-osagarri hau 1996ko Gastu Aurrekontuko hurrengoei aplikatuko zaie: 00000 Proiektuari, 41000-1310-4211 kontusaila, 12820-0 lerroa, "Aldi baterako langileen kontratazioa" izenekoa,

487.278.092 pezeta; eta 00000 Proiektuari, 41000-1600-4211 kontusaila, 12850-1 lerroa, "Gizarte Segurantza" izenekoa, 247.158.329 pezeta.

2. artikulua. Aipatu kreditu-osagarriaren finantzazioa hurrengoan izandako dirusarrera handia- goen kargura egingen da: 11400-8700 kontusaila, 12000 proiektua, 33725-6 lerroa, "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izenekoa.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe- tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku- luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko uztailaren 1ean hartuta- ko Erabakiaren bidez, Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramale- en Batzarrarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proiektua ohiko ihardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldiz- kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epe bat irekiko da, 1996ko iraila- ren 30eko 12etan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlama- tari-ek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari."

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Urbasako eta Andiako mendiek naturgune bat osatzen dute, geologia, biologia, ekologia, esteti- ka, paisaje, arkeologia eta soziokultura aldetik balio multzo zabal batez hornitua.

Geologia aldetik, bi mendiek kararrizko mazizo zabal bat osatzen dute, morfoegitura bereziak dituena Pirinio-Kantauriko eremuan. Faktore bio- klimatikoek karst zabalean menderen mende egindako lanak paisaje mineral berezi bat taxutu dute eta, barrenetik, tamaina gaitzeko akuifero bat, interesgarria oso hurbileko populazio gune- tako giza hornidurarako, Iruñea eta horren inguru- nea barne. Horri zoru podsoldoen berezitasun edafologikoa erantsi behar zaio, bakarra baita Galiziakoekin batera penintsularen eremuan.

Biologiaren ikuspegitik, mendi horietan biltzen dira erregio eurosiberiar-atlantiarreko eta medite- rraniar iberiarreko bioaniztasunaren elementu bio- geografiko endemiko bereizgarriak. Adierazgarri aipagarrienen artean, ugatza, uhandre alpetarra eta bertako landareen zenbait taxon daude: Scrophularia crithmifolia, burundana subespeziea, Cochlearia aragonensis, navarrana subespeziea, Genista eliasennenii, Arenaria vitoriana, Lathyrus vivantii, Narcisus varduliensis eta Dryopteris cart- husiana.

Ekologia aldetik, mendi hauetan Europako Elkartearen intereseko habitatak daude, hala deklaraturta baitaude habitat naturalak eta basa

fauna eta flora zaintzeko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentarauan. Horien artean, interes berezia dute pagadi azidofi-loek, baso horiei lotutako txilardiek eta soilune eta harkaitzetako larreek.

Estetika aldetik, lurralde hori Nafarroa hezeko eta trantsizioko paisaje adierazgarrienetako bat da, edertasun natural handikoa, mendez mende oihan eta larreen erabileraren bitartez areagotu dena, sistema erdinatural orekatu harmoniotsuak sortarazi baititu. Ondare arkeologiko aberatsa gaur arte iraun duen antzinako artzain kulturaren lekukoa da, duen garrantzi historikoa oraindik aitortzekoa badu ere.

Ezin da ahantzi Urbasako eta Andiako mendiak antzina-antzinako ondare historikoa direla Nafarroa osoarentzat. Horren administrazioa eta gestioa, alde batetik, Koroaren eta, ondoren, egungo Nafarroako Gobernura arte, foru erakundeen lanari esker etorri zaigu, eta, bestetik, Ameskoako Limitaciones mendiko Administrazio Batzarreari esker. Mendez mende iraun duen tradiziozko entitatea da hori, Lege honek aitortu eta babesten dizkion ahalmen historikoak dituen, Nafarroako ohiturazko Zuzenbidearen muina delako.

Hain da oparoa bi mendi horietan bildutako balio natural anitza, ezen foru erakunde publikoen babes juridikoa behar baitute, naturgunearen kontserbazioa eta iraupena bermatuko badira. Horiek baliaibide naturalen erabilera ordenatuarekin bateragarriak dira sektore eta eragile sozialen bitartez.

Gehiago ere bada: lurralde hori babesteko arrazoi estrategikoa dago, erreserba natural horri darion uraren kalitatea segurtatzen delako, izan ere, haren erabilerak mendien muga fisikoetatik askoz haratago egiten baitu, nafar populazioaren gehiengo zabal batengana hedatzeko, hiriburuan eta ingurunean bizi dena ere hartuz.

Urbasako eta Andiako mendiak Natur Parke deklaratzeko figura juridiko egokiena da, ez bakarrik balore horiek edo uraren nahiz ekosistemen kontserbazioa identifikatzeko, baita plangintza eta gestio integral koherenteak bermatzeko, egungo eskaerak eta sor daitezkeenak bat etor daitezzen.

Natur Parkearen bitartez, gainera, gizarte nafar guztiak eredugarritzat du aurreko belaunaldiak basoan egindako probetxamendu ordenatu eta arrazionala, gaur egun hain ohikoa dugun garapen jasangarriaren teoria ospetsua gauzatu eta aplikatu baitute aspalditik.

Gainera, Natur Parkea da eskualdeko biztanleek (Limitacionesko Batzarrea, Burunda eta Arañazko komunitatea...) mendez mende garatu

duten erabilera eta gestioko formula tradizionalak hobekien babesten dituen botere publikoen deklarazioa. Halaber, Natur Parkeak bultzatu eta handitzen du tradiziozko eta artisautzako sektoreek beraiek sortutako produktuen berezitasunagatiko balio ekonomikoa eta,aldi berean, erakargunea da kanpoko baliaibide ekonomikoentzat mendi ingurura eta hirigune hurbilenetara gerturatzeko, eskualdeko garapen sozioekonomikorako dakarren onuraz gain.

Natur Parkeak 21.408 hektarea hartzen ditu denetara, honela banaturik: 4.700 hektarea Andia-ko mendian, 11.399 hektarea Urbasako mendian, Nafarroako Gobernuaren esku, 5.190 hektarea Limitaciones mendian, Erauldik eta Etxabarritik banandutako zatia barne dela, eta 119 hektarea Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserban.

Natur Parkea deklaratzeko, eremuko Natur Baliaibideak Antolatzeke Plana prestatu eta onetsi behar zen, eta hori 1996ko uztailaren 1ean onetsitako Foru Dekretuaren bidez egin zen.

Bai deklarazioan, bai Natur Parkearen kudeaketan, kontutan hartu dira, errespetatu eta babestu Limitaciones mendiko Batzarrearen eskubide historikoak, tradiziozko Batasun administratiboa denez gero, baita Burunda eta Arañazko Komunitatearen eta Deierriko Udalaren eskubideak ere, Planaren arautegian propio bildutakoak, haren parte baitira aurrerantzean.

Limitaciones Mendiko Batzarreak kudeatuko du Natur Parkea bere lurraldean, eta Nafarroako Gobernuak gainerakoan, bi lurraldeok kudeatzeko mendez mende erabili diren formulei jarraipena emanez.

Urbasako eta Andiako mendiak kudeatzeko partaidetza sozialerako, Nafarroako Gobernuak Patronatu bat sortzeko asmoa du, Foru Administrazioaren, toki entitateen, Limitaciones mendiko Batzarrearen, elkarte kontserbaziozaleen, eremuko nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzako sektoreen eta zuzenean interesatuta egon daitezkeen beste sektoreen ordezkariak osaturik, erregelamendu bidez ezarriko den modu eta osaketarekin. Horrekin nafar guztien ondarea den eta Nafarroako Foru Komunitateak bere-berea duen naturgune honen gestio integrala, partaide bidezkoa, sendotzen da.

1. artikulua. Natur Parke deklaratzeko da Urbasako eta Andiako mendiak, Limitaciones mendiak eta Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserbak (RN-14) osatutako eremua, muga hauek dituen:

– Iparraldeko muga: Urbasako eta Andiako mendien muga Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain,

Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Ergoien, Uhar-te-Arakil, Irañeta eta Arakileko udal mugapeekin.

– Ekialdeko muga: Andiako mendiaren muga Ollaran eta Goñibarko udal dermioekin.

– Hegoaldeko muga, ekialdetik mendebaldera: Urbasako eta Andiako mendien muga Gesalatz, Lezaun eta Abartzuzako udal dermioekin, non Urbasako mendiaren muga utzi eta Ameskoako Limitacionesen hegoaldeko mugari jarraitzen baitio, Ameskoabarren, Eulate, Araratxe eta Larranako dermioekin muga eginez, Araba eta Nafarroa arteko muga administratiboraino.

– Mendebaldeko muga: Araba eta Nafarroa arteko muga.

2. artikulua. Natur Baliabideak Antolatzeko Planak, Nafarroako Gobernuak 1996ko uztailaren 1eko Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, arautuko du Urbasako eta Andiako Natur Parkea, baita hark izan ditzakeen aldaketek ere.

3. artikulua. Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarreak bere esku izaten jarraituko du Urbasako Limitaciones mendia erabili eta kudeatzeko ahalmen historikoak, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari eta Nafarroako naturguneei buruzko legeria orokorraren arabera ihardunez.

4. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokio Natur Parkearen kudeaketa Urbasako eta Andiako mendietan eta Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserban, Limitaciones mendiaren lurraldean izan ezik.

2. Limitaciones mendiko Batzarreari dagokio Natur Parkearen kudeaketa Limitaciones mendiaren lurraldean eta, kasuan-kasuan, Ameskoako Udalei.

Hori dela eta, Limitaciones mendiko Batzarrea izanen da Urbasako eta Andiako Natur Parkea kudeatuko duen organo administratiboa Limitaciones mendiaren lurraldean. Limitacionesko Batzarreak izanen ditu egungo antolamendu juridikoak Natur Parkeetako gestio organoei ematen dizkien ahalmen eta eskumen administratibo guztiak.

3. Limitaciones mendian egin daitezkeen jarduera eta erabilerak Limitaciones mendiko Batzarreak onetsitako Ordenantzei lotuko zaizkie, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ordenantzak aurkeztu eta bi hilabete epean haien legezketasunari buruzko txostena eman ondoren.

Limitaciones mendiko Ordenantzek espazioak kontserbatzeko legediak Erabilera eta Gestio Plan Zuzentzaileei emandako izaera eta ondorioak izanen dituzte.

4. Nafarroako Gobernuaren eta Limitacionesko Batzarrearen arteko lankidetzak eta kooperaziorako, bi erakundeek haien ordezkariak osatutako lankidetzak organoa sortu ahal dute, bien adostasunarekin.

5. artikulua. 1. Kudeaketan parte hartu eta laguntzeko organo gisa, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Urbasako eta Andiako Natur Parkearen barreneko eremuan, Patronatu bat sortuko du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria edo bere ordezkari agintaria buru dela, erregelamendu bidez ezarriko diren eginkizun eta osaketarekin.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, toki entitateen, Limitaciones mendiko Batzarrearen, elkarte ekologisten, eskualdeko nakazaritza, abeltzaintza eta oihangintzako sektoreen eta zuzenean interesa izan dezaketen beste sektore batzuen ordezkariak osatuko dute Patronatua.

Xedapen Iragankorra

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak behar diren ekimenak bultzatuko ditu Urbasako eta Andiako Natur Parkeko Patronatua eratu dadin, urtebetean gehienez ere.

2. Natur Baliabideak Antolatzeko Plana garatzeko eta parkearen esparruan, Limitaciones mendia salbu, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzentzailea prestatuko du urte betean, eta Nafarroako Gobernuak onetsiko, Patronatuak txostena eman ondoren.

3. Limitaciones mendiko Batzarreak bere ordenantzak berrikusiko ditu bi urteko epean gehienez ere, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik. Epe hori Ordenantzen proiektua Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aurkeztu gabe iraganez gero, horrek errekerimendua egingen dio Batzarreari hiru hilabete epean aurkez dezan, eta hori egin gabe iraganez gero, Departamentuak subrogatuko du haren erredakzioa eta Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio Ordenantzak, onets ditzan.

Azken Xedapenak

Lehendabizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren xedapenak eman ditzan Foru Lege hau garatu eta betearazteko.

Bigarrena. Foru Lege honek BONEan argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organo- noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatze- ari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko abuztuaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuari bidali dio.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramale-
en Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzko Foru Lege proiektua ohiko ihardunbidez bide-
ratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldiz-
kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1996ko irailaren 30eko 12etan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentari-
ek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzen- daritza organo- noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzkoa

Apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeak Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organo-
ak erregulatu zituen, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 56.1.f) artikulua-
ren babesean,

zertarako eta aipatu entitateak demokraziaren bidean jartzeko, haien kudeaketaren inguruan bil-
tzen diren interesei leku emanez eta organo-
etako eskumenak zabalduz, espezializazio printzipioari jarraituta.

7/1987 Foru Legeak kontuan hartu behar izan zuen, ezinbestez, Estatuko arautegiaren edukia, hain zuzen ere Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organo-
noei buruzko oinarrizko arauak erregulatu zituen 31/1985 Legeak ezarritakoa, izan ere aipa-
tu legezko xedapen horren azken xedapenetako laugarrenak haren edukia, hein handi batean, oinarrizko arau deklaratu baitzuen.

Zentzu hori azpimarratu nahi izan zuen 1988.eko martxoaren 22ko Auzitegi Konstituzio-
nalaren epaiak. Epai horri jarraituz, alde batetik 31/1985 Legeko manuetako batzuk Konstituzio-
aren aurkako deklaratu dira, hain zuzen ere foru arautegiaren antzeko edukia dutenak, eta bestetik lege horren edukietako zenbait ez dira jada oina-
rrizkotzat hartzen. Horregatik guztiarengatik, komeni da 7/1987 Foru Legea aldatzeko proiektu bat egitea, Auzitegi Konstituzionalaren aipatu epaiari egokitzeko.

Artikulu bakarra. Nafarroako Aurrezki Kutxe-
tako zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeko ondoko artikulua-
k honela geldituko dira:

Lehena.

"8. artikulua. Osaketa.

1. Aurreko artikuluan aipatu diren sektoreetako ordezkari-
tza honako ehunekoaren arabera banatu-
ko da:

a) Aurrezki Kutxako ezarleek Kontseilari Nagu-
sien % 44ko ordezkari-
tza izanen dute.

b) Aurrezki Kutxako pertsona edo entitate sor-
tzaileek kontseilari nagusien % 11ko ordezkari-
tza izanen dute. Pertsona edo entitate sortzaileek beren ordezkari-
tza honako ehunekoaren hein bat eman ahal izanen diote interes sozialeko erakundeei edo toki udalbatzei, baldin eta haien jarduteko esparruan beste Aurrezki Kutxa batzuetako sor-
tzaile ez badira.

c) Udallerri batean Aurrezki Kutxak bulego bat zabaldua badu, Udalbatzak kontseilari nagusien % 40ko ordezkari-
tza izanen du.

d) Aurrezki Kutxako enplegatuek kontseilari nagusien % 5eko ordezkari izanen dute.

2. Pertsona edo entitate sortzaileek dagokien ordezkari izan ez badute edo erabili nahi ez badute, ordezkari hori gainerako taldeen artean hainbanatuko da."

Bigarrena.

"14. artikulua. Udalbatzetako ordezkarien hautaketa.

1. Udalbatzek zuzenean izendatuko dituzte beren kontseilari nagusiak, erregelamendu bidez zehaztuko den prozedura baten arabera, Aurrezki Kutxak bulegoa zabaldua duen udalerrietako udalbatzen ordezkari.

Udalbatza baten ordezkari bezala kontseilari nagusi izendatua izateko, Foru Lege honetako 9. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta ezin izanen da 11. artikuluan adierazitako bateraezintasun kasuetako ezeinetan ere egon.

2. Toki korporazioek, baldin eta beste Aurrezki Kutxa baten jarduteko esparru berean edo hein batean berdinean lan egiten duen Aurrezki Kutxa baten sortzaileak badira, ezin izanen dute lehen-dabizikoaren ordezkari izendatu."

Hirugarrena.

"22. artikulua. Osaketa eta eginkizunak.

1. Administrazio Kontseilua da Aurrezki Kutxaren finantzaketako administrazio eta kudeaketa lanen eginkizuna duen organoa, bai eta Gizarte Ongintzaren Lanarena ere.

2. Administrazio kontseilariak ez dira hamaika baino gutxiago izanen ez eta hogeita bat baino gehiago ere. Talde horretan egonen dira Udalbatzetako ordezkariak, ezarleak, pertsona edo entitate sortzaileak eta Aurrezki Kutxako enplegatuek.

3. Administrazio kontseilariaren baten kargu uzte edo izendapenaren atzera botatze kasuetan, ordezkariak beteko du haren tokia gelditzen den aldi osoan. Ordezkari talde bakoitzetik, xede hauetarako soilik, administrazio kontseilari adina ordezkari izendatuko dira, haiek izendatzen diren prozedura bera erabiliz."

Laugarrena.

"23. artikulua. Ordezkari izan.

Administrazio Kontseiluak guztien interesak ordezkari izan ditu, eta lan horretan talde guztiek hartuko dute parte, Foru Lege honetako 8. artikulua Batzarre Orokorreko kideentzako ezarritako proportzio eta ezaugarri berdinekin. Hala ere, bereizkuntza hauek egiten dira:

a) Batzarre Orokorrek izendatuko ditu ezarleen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta azken horien artetik.

Ezarleen ordezkari izateko izangaiak aurkezte-rakoan, gutxienez, kontseilari nagusien kopuruaren zortzirenak aurkeztu beharko dira, izan ere ezarleen taldeari dagokiona.

Dena den, behar diren profesionaltasun behar-kizunak bete bai baina kontseilari nagusi izanen ez diren bi pertsona izendatu ahal izanen dira, gehienez ere.

b) Batzarre Orokorrek izendatuko ditu pertsona edo entitate sortzaileen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik.

c) Batzarre Orokorrek izendatuko ditu udalbatzetako ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, udalbatza horietako ordezkari diren kontseilari nagusiek proposatuta.

Izangaiak proposatu ahal izateko, talde hartako ordezkari diren kontseilari nagusien hamarrenak edo gehiago behar dira.

Izendapena udalbatzetako ordezkariak diren kontseilari nagusien aldekoa edo profesionaltasun behar-kizunak betetzen dituzten bestelako pertsonen aldekoa izan ahalko da, beti ere azken horiek bi baino gehiago ez badira.

d) Batzarre Orokorrek izendatuko ditu Aurrezki Kutxako enplegatuen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik."

Bosgarrena.

"33. artikulua. Osaketa.

1. Kontrolerako Batzordearen kideak lautik zortzira izanen dira eta Batzarre Orokorrek izendatuko ditu administrazio kontseilariak ez diren kideen artetik, baina batzorde horretan, beti, udalbatzen, ezarleen, pertsona edo entitate sortzaileen eta Aurrezki Kutxako langileen ordezkariak izanen dira. Izangaiak aurkezteko orduan, Administrazio Kontseilariak aurkezteko xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Gainera, Nafarroako Gobernuak gaitasuna eta prestakuntza tekniko egokiak dauzkaten pertsonen artean izendatutako ordezkari bat ere izan ahalko da Kontrolerako Batzorde horretan. Batzordearen bileretara joanen da eta hizpidea izanen du baina ez botorik.

3. Aurreko idazatian aipatu den Nafarroako Gobernuaren ordezkaria kenduta, mahaikide

baten kargu uzte edo izendapenaren atzera botatzea gertatzen bada agintaldia bukatu baino lehen, mahaikide horri dagokion ordezkioak beteiko du haren tokia gelditzen den aldirian. Ordezkaritza talde bakoitzean, soilik idazati honetan aipatzen diren xedeetarako, mahaikide adina ordezkio izendatuko dira, haiek izendatzeko prozedura bera erabiliz.

4. Kontrolerako Batzordeak batzordeburu bat eta idazkari bat izendatuko ditu bere kideen artean.

5. Kontrolerako Batzordeak eskatzen duen orotan, zuzendari nagusia bileretara joanen da, hizpidearekin baina botorik gabe."

Xedapen Gehigarria

1. Foru Lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak bera garatzeko eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emanen ditu.

2. Arauzko xedapenek horiek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Aurrezki Kutxek beren estatutu eta erregelamenduak arau berrira egokitu eta Nafarroako Gobernuari igorriko dizkiote, onetsi ditzen.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrak gabe gelditu dira Foru Lege honetako edukiaren aurkakoak diren maila bereko edo behegoko xedapen guztiak.

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko abuztuaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak aurkezteko epe bat irekitzea. Epe hori **proiektua eztabaidatuko duen Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 12etan bukatuko da.** Berauek Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu behar dira.

Hirugarrena.- Aipatu proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea."

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua

1996ko ekitaldian zehar, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuan nabarmen gelditu da kredituaskieza "Partzuergoen kudeaketarako Transfentziak" aurrekontu-kontusailean, "Turismo-sektorearen sustapena" proiektuari dagokionean.

Horren ondorioz, behar hauei aurre egiteko kreditu-osagarria ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik.

1. artikulua. 45.096.782 pezeta jotzen duen kreditu-osagarria ematen da, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren beharrei aurre egiteko. Kreditu-osagarri hau 1996ko Gastuen Aurrekontuko 82210-4810-7512 Kontusail, 50001 proiektul, 30330-3 lerroari, "Partzuergoen kudeaketarako Transfentziak" izenekoari aplikatuko zaio.

2. artikulua. Kreditu osagarri hau ondoren aipatzen den gastu aurrekontu-kontusailean gertatzen den kredituaren kontura finantzatzeko da: 82210-7459-7512, proiektua, 50001, lerroa, 30390-7, izena, "Bertitz, Plazaola, Ekialdeko Pirinioa, Lizarra eta Erriberako Partzuergoendako Transfentziak. FEDER Programak"

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

E Sails:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Kolonbian iragan ekainaren 8an izandako gertakizunei buruzko aldarrikapen politikoa

BOZERAMALEEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaleen Batzarrak 1996ko irailaren 2an egindako bilkuran, hurrengo aitorten politikoa onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak jakin izan du aurten ekainaren 8an Barrancabermejan izandako gertakizunen berri; bertan SIJINi atxikitako hainbat hamarrekoko polizia nazionalak burututako zabalpen operatibo batean PBIko (Peace Brigades International) bi bolondres nahasi zituzten, Inteligentzia Militarraren ustezko txosten batean oinarriturik; horretan azaltzen da ustez matxinaturiko emakume gerrilari bat lagundu zutela Simititik Barrancabermejaraino eta hiri honetan PBIk duen egoitzean izkutatu zutela.

Jakin izan du ere ekainaren 13an Willem Westeraan PBIko partaideak Bogotara bidaiatu zuela Barrancatik gaueko 9:30etan irtetzen zen autobusean, arratsalde hartan bertan erretserbatu zuelarik horretarako txartela; eta, autobusa irten berria zelarik, talde armatu batek aurrean zihoan autobusa eraso zuela, eta dirudenez gizon bat hil eta gidariaren laguntzailea zauritu zutela; eta Bogotara joateko Barrancabermejatik gaueko 9:30etako autobusean zihoan “atzeritar” baten bila ari zirela.

Nafarroako Parlamentuak jokaera hori gardena eta Kolonbiako agintari eta erakundeek publikoki onartua delako ustean, ondoren aipatzen diren erakunde

- Kanpo Arazotako Espainiako Ministerioari
- Kolonbiako Ejerzito Nazionalaren Bigarren dibisioari
- Kolonbiako Errepublikako Lehendakariari
- Kolonbiako Defentsa Ministroari
- Kolonbiako Barne Ministroari,

ESKATZEN DIE:

Ekainaren 8ko gertakizunei dagokienez, SIJINek aipatu zuen Txosten Militarraren egiazkotasuna frogatzea, hura izateari zein haren edukiari doakienean, baita ekainaren 13ko gertakizunak ere, aipatu bidaiari Peace Brigades International egotearekin zerikusirik duten jakin ahal izateko.”

Iruñean, 1996ko irailaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

H Sails:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena, deitzen den lehen Osoko Bilkuran eztabaidan jarzteaz, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legeko Lehen Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, xedapen honek ematen baitio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergen Erregimen berriari Egokitzeko Akordioak ezartzen duena betearazteko behar diren arauak aldarrikatzeko.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990ko uztailaren 31n izenpetu zuten Hitzarmen Ekonomikoko 30. artikulua ezartzen du Nafarroako Zerga Berezien ordainarazpenari dagokionean, Estatu mailan uneoro indarra duten oinarritzko hastapen, balio handiko arau eta formazko arauak izanen direla aplikagarri.

Bertze alde batetik, indarra duen Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legeko Lehen Xedapen Gehigarriak Nafarroako Gobernuari baimena ematen dio beharrezkoak diren arauak emateko, Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Ezarpenaren araubide berriari egokitzeko Akordioan ezarritakoa betetzeko. Akordio hau aipatzen denean Hitzarmen Ekonomiko berria dugu gogoan, honek indarra hartu ondoren.

Hitzarmen berri horrek aipatutako egokitzapena onesten duen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea espreski indarrak gabe uzten du.

Zerga Berezien araubide arrunta arautzen duen abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatzeak, alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko Zerga Berezien zerga tasen eguneratzearen ondorioz, beharrezkoa egiten du Nafarroan indarra izanen duten arauak ematea, behin-behinekotasunez bada ere, Foru Dekretu baten bidez eta aipatu Xedapen Gehigarriko bigarren lerroaldean aurkutsitakoari jarraikiz. Foru Dekretu hau eman eta hamar eguneko epean igorriko zaio Parlamentuari, honek behin betikoz onets dezan.

Horrenbertzez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta lauretan hogeita hamaseiko uztailaren hogeita bederatzian egin bilkuran hartu duen Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legea, abenduaren 30ekoa, aldatzea. 1996ko uztailaren 31tik aitzina, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen ondoko artikulua hauek, honela geldituko dira:

Lehenbizikoa. 35. artikulua.

"35. artikulua. Zerga tasa. Zerga tasa 114.000 pezetakoa izanen da alkohol hutseko hektolitro bakoitzeko, 36 eta 37. artikuluetan xedatutakoa galarazi gabe."

Bigarrena. 36. artikulua, 2. zenbakia, a) letra, 5. idazatia, b) letra, 5. idazatia, eta 4. zenbakia. 2.a) 5. idazatia.

"5. Karga tasa. Zerga 99.760 pezetakoa izanen da alkohol hutseko hektolitro bakoitzeko. Idazati honetan xedatutakoa 37. artikuluan ezarritakoa deustan galarazi gabe ulertu behar da."

2.b) 5. idazatia.

"5. Karga tasa. Zerga 99.760 pezetakoa izanen da alkohol hutseko hektolitro bakoitzeko. Idazati honetan xedatutakoa 37. artikuluan ezarritakoa deustan galarazi gabe ulertu behar da."

4. zenbakia.

"4. Distilatzaile txikiek bertze estatu elkartekide batzuetan ekoiztutako edari deribatuak sartzea. Bertze estatu elkartekide batzuetan finkatuak dauden eta alkohol hutseko 10 hektolitrotik goitikoa ez den urteroko ekoizpena lortzen duten ekoizle independenteek ekoiztutako edari deribatuei aplikatzekoa den tasa 99.760 pezetakoa izanen da alkohol hutseko hektolitroko".

Hirugarrena. 37. artikulua.

"37. artikulua. Uztalariaren erregimena.

Artisau-destilazioen erregimenean lortutako ekoiztutako edariak fabrikatik bertatik uztalariak zuzenean kontsumitzeko erabiltzen direnean, erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan, zerga tasa aplikagarria 26.910 pezetakoa izanen da alkohol hutseko hektolitro bakoitzeko. Tasa horren aplikazio muga uztalariko eta urteko alkohol hutseko 16 litro dauzkan edari kantitateari egokitzen zaiona izanen da."

Xedapen Gehigarria

Dekretu honek biltzen dituen arauak behin-behinekoak dira, Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

I Saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1996ko uztailean eta abuztuan eginiko bilerak**UZTAILA****MAHAIA**

22an.

MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA

1ean, 26an eta 31n.

OSOKO BILKURA

15ean, 16an, 18an, 20an eta 22an.

– Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzarako hautagaiaren inbestidura eztabaidatu eta bozkatzeari.

ABUZTUA**MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA**

5ean, 9an, 14an, 19an, 23an eta 28an.

**INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA
ETA TURISMO BATZORDEA**

8an:

– Lan bilera, "Industrias Esteban, SA" Enpresa

Komitearen ordezkariak batek aipatutako enpresaren egoeraren berri emateko.

9an:

– Industri, Merkataritza eta Turismo Kontseilaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, "Industrias Esteban, SA", enpresaren egoeraren berri eman dezan.

Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1996ko uztailean eta abuztuan sartu diren agirien zerrenda**UZTAILA****1a:**

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, eta berekin batera Parlamentuari bidaltzen zaion Nafarroako Foru Komunitateko eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, eta berekin batera Parlamentuari bidaltzen zaion jardueira ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzko Foru Lege proiektua.

2a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berekin batera Gizarte Ongizate Kontseilariaren Foru

Agindua, programa bereko kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– Inmaculada Errea Cleix andrearen idazkia, Langileen Batzarreko kide izateari uko egiteko.

4a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berekin batera Ekonomi eta Ogasun Departamentuak 1996ko lehen hiruhilekoan egin dituen eragiketegi buruzko informazioa.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Vianako Udalaren udal-igeritegietan sei lanpostu kontratatatzeko espedienteari buruzko informazioa eskatzen duena.

– Peace Brigadas International taldearen idazkia, eta berarekin batera Kolonbian jazo diren hainbat gertaerari buruzko informazioa.

5a:

– Baztango Udalaren idazkia, Udalbatza hartako Osoko Bilkurak Senideak elkarrekin aurkeztu duen mozioa onartu duela adierazten duena.

– Langileen Batzarraren idazkia, De Santiago Segovia jauna Errea Cleix andrearen ordezkotza izan dadin eskatzen duena.

12a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Gizarte Ongizate Kontseilariaren Foru Agindua, 1996ko aurrekontuko kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

18a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Kontseilariaren Foru Agindua, kreditu transferentzia baimentzen duena.

– Kanarietako "Paz para el Pueblo Saharaui" Taldearen idazkia, eta berarekin batera Kanarietako Parlamentuak Saharako pakearen alde egin duen aldarrikapen instituzionala.

22a:

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia, Osoko Bilkurak minen fabrikazio, esportazio eta salmenta debekatzeari buruzko Erabakia jaso duela adierazten duena.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia, hurrenez hurreneko armak kentzearen alde egingo duten neurriei buruzko Erabakia jaso duela adierazten duena.

23a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidean egindako zerbitzu eginkizunak eta luzapenak, atxikipenak edo lekualdaketei buruz egin duen galderaren erantzuna.

24a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak Iruñeko Bigarren Zabalguneako Osasun eskualde Oinarrizkoaren beharrei buruz egin duen galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Nafarroako Aurrekontu Orokorren bete-tze-egoera, bigarren hiruhilekoari dagokiona.

26a:

– Eusko Jaurlaritzaren idazkia, minen fabrikazio, esportazio eta salmenta debekatzeari buruzko Erabakia jaso duela adierazten duena.

– Josep M^a Martínez i Balart jaunaren idazkia, Foruzaingoan eta Nafarroako toki polizietan sartzeko sexuarengatiko bereizkeria desager dadin eskatzen duena.

29a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Aizpurgiko hondakindegian antzemandako kutsadura kentzeko aurreikusi diren jarduketei buruzko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, eta berarekin batera Parlamentuari bidaltzen zaion Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuarentzako kreditu-osagarria emateari buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, eta berarekin batera Parlamentuari bidaltzen zaion Urbasa eta Andia Natur Parkeari buruzko Foru Lege proiektua.

– Senatuaren idazkia, 1996ko irailetik abendura arte egingo duten jardueren egutegia adierazten duena.

– 3 zenbakiko Instrukzioko Epaitegiaren idazkia, Xotero Etxandi Juanikotena jauna Foru Parlamentaria dela egiazta dadin eskatzen duena.

31a:

– Félix Taberna Monzón eta Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentariaren idazkia, Industria Kontseilariaren agerraldia eskatzen duena, Industrias Esteban, S.A. enpresaren krisiaren iritzia, analisia eta irtenbideari buruz mintzatzeko.

– Félix Taberna Monzón eta Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentariaren idazkia, Industrias Estebaneko Enpresa Batzordearekin lan-bilera eskatzen duena, enpresaren krisiaren iritzia, analisia eta irtenbideari buruz mintzatzeko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera José M^a Cebrián Jiménez jaunaren Parlamentuarekiko adskripzioa luzatzen duen Foru Agindua.

ABUZTUA**2a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Fundazioen eta babes ihardueren tributu araubideari buruzko uztailaren 2ko 10/96 Foru Legean oker bat antzeman dela gaitzatzen duena.

6a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak euskararen irakaskuntzarako salbuespen erregimenari buruzko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak euskararen eta euskarazko irakaskuntzaz NUPeko agintaritzaren organoek egindako arauketari buruzko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunak "Club Deportivo Balamar-Señorio de Zuasti" gizonezko saskibaloitaldearen balizko desagerpenari buruzko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) antolaketari buruzko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera "Ezker Abertzalea" Parlamentari Taldeak 1994-1995 eta 1995-1996 ikasturteetan, ikastetxe publiko eta pribatuetan, hizkuntza eredu ezberdinetan izandako matrikulei buruzko eskatu zuen informazioa.

7a:

– Elgetako (Gipuzkoa) Udalaren idazkia, Udalbatza horren Osoko Bilkurak Senideak euskal presoei buruz aurkezturiko mozioa onetsi duela jakinarazten duena.

9a:

– "Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeak aurkezturiko idazkia, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek legegintzaldiaren hasieratik jasotako ehunekoei buruzko txostena eskatzen duena.

– Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunaren idazkia, 1996rako Nafarroako Osasun Garraio Publikoaren zerbitzuaren kontratazioari buruzko informazioa eskatzen duena.

12a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin bat Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren

Foru Agindua eta Ekonomia eta Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusien Ebazpenak, ekaina eta uztailari dagozkienak.

13a:

– Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren idazkia, 1996ko martxoaren 6 eta 27 egunei dagozkien osoko bilkuretan grabatu ziren bideozintak igortzeko eskatzen duena.

14a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta horrekin bat uztailaren 29ko 296/1996 Foru Dekretua, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

19a:

– Gizarte Ongizate Departamentuaren idazkia, eta horrekin bat Foru Agindua, 10 Programako kontusailen arteko transferentziak baimentzen duena.

21a:

– "Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, Ministroen Kontseiluak abuztuaren 2an GALen agiriei buruz hartutako erabakia gaitzesteko.

– Euskaltzaindiaren idazkia, eta horrekin bat horren ohar instituzionala.

– Ingurugiroari buruzko III. Kongresu Nazionalaren idazkia, eta horrekin bat Kongresuaren aurretiko egitaraua.

– Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordearen idazkia, Parlamentuaren egoitza berriari buruzko informazioa eskatuz.

23a:

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia, hainbat enpresari emandako obralesleipen eta dirulaguntza publikoei buruzko informazioa eskatzen duena.

27a:

– Itzaltzuko Udaleko alkatearen idazkia, Limitaciones Mendiko Batzorde Administratiboa eta Ameskoetako Udalen eskaeren alde agertuz.

28a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, 1996ko ekainaren 30era arte emandako abalak eta bermaturiko zenbatakoei buruzko informazioa igortzen duena.

29a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kude-

atu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta horrekin batera 1995eko Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua.

– Cárcarko Udalaren idazkia, eta horrekin bat 19996ko abuztuaren 8an hartutazko erabakia, Limitaciones Mendia Urbasa-Andiako Parke Naturalatik at uzteko.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--